



Ukrainako gerraren beste irakurketa bat



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Ukrainako gerrar hasierako zergatiak ez dira azaldu zizkigutenak bakarrik, beste arrazoi batzuk ere badaudelako. Errusiak zioen Ukrainako errusiar hiltunen defentsarako urrats bat eman behar zuela; Ukrainako Gobernuak, aldiz, Errusiaren armadari aurre egin behar zitzaioela, inbasioa geratze aldera. Baina ezkutuan geratu zen lur arraroen auzia, Mendebaldeko agintariak begiak ipinita zeuzkaten lur prezia-tu horietan, etorkizuneko ekonomian protagonismo itzela izango baitute.

Nolanahi ere, lur arraroak gaurko ekonomiarentzat lehengai estrategikoa dira: Adimen Artifizialean, auto elektrikoetan, mugikorretan, espazio ontzietan eta industria militarrean. Lur arraro horien planetako ustiapen gehiena Txinaren gauzatzen da. Izan ere, hirutik bat, bederen, Txinako meategietatik ateratzen dira, eta herrialde hartatik inportatzen dituzte, bai AEBek zein EBk, Txinarekiko menpekotasuna uka ezina delako. Eta hor sartzen zaigu Ukraina, non lur arraro ugari dauden, munduko existentzien %7; halaber, meategi gehien Errusiak eskuratutako eremuan kokatzen dira.

AEBetako demokratek “dirulaguntza” andana eman zioten Ukrainari, horrela Errusia ahulduko zutela pentsatzen baitzuten, eta Trumpen garaipenarekin, egoera erabat aldatu da. Nire uste apa-lean, Trumpek Errusia erakarri nahi du eta Txinatik aldentu, hobe baita Errusia bezalako etsai batekin adiskidetzea bo-rrokatzea baino; gainera, Errusia mili-

Europarrok
kontzientziatu nahian,
Errusiarekiko izua
sartu nahi digute,
militarizazioa onar
dezagun. Baina Errusiak
noiz inbaditu du
Europa? Begi bistakoa da
alderantziz izan dela

tarki eta ekonomikoki, antza, ez da hain arriskutsua.

Helburu hori kontutan hartuta, bai Trumpek zein bere aginte taldeak berreskuratu nahi dituzte Bidenek emandako dirutzak, eta lur arraroen ustia-pena jarri dute AEBen eta Ukrainaren arteko negoziazioen erdian, horrela zor-rrak kitatuko dituztelakoan.

Azken finean, munduko ekonomia banatu nahi dute hiru herrialde nagusiek, XIX. mendean Britainia Handiak eta Frantziako Estatuak egin zuten mo-duan. Orain, antza, AEBek, Errusiak eta Txinak banatu nahi dute mundua, EB kanpoan utzita.

Bestalde, protagonismoa eskuratze aldera, EBko agintariak pentsatzen dute

defentsarako industria izan daitekeela oinarri sendoa, atzeratuta geratu zaigun ekonomiari bulkada emateko. Horretarako, europarrok kontzientziatu nahian, Errusiarekiko izua sartu nahi digute, mi-litarizazioa onar dezagun.

Baina Errusiak noiz inbaditu du Euro-pa? Historiari gainbegirada bat ematen badiogu, begi bistakoa da alderantziz izan dela azken mendeetan. Izan ere, Napoleonek inbaditu zuen; boltxebikeek boterea hartu ostean, errusiar “armada zuriaren” laguntzaile frantziar eta britai-niar gobernuek; eta Hitler ere Errusian sartu zen eta 26 milioi sobietar hilotz utzi zituen. Beraz, oso zaila egiten zait nireganatzea, orain, Errusiak Europa in-badituko duenik.

Baina nola defendatu Europa? Izan ere, industria militar europarra ahula da, salbu Frantziako Estatuak eta Britainia Handikoa. Gainontzeko herrialdeetan gutxitxo ekoizten da eta, berrarmatze-kotan, AEBei erosi beharko dizkiegu ar-mak, jadanik armetan gastatzen dugu-naren %55 han egiten baitugu. Haatik, AEBekiko menpe jarraituko dugu, eta herrialde horretako industria militarra profitatuko da.

Epe motz eta ertainean AEBei armak erosten jarraituko dugu, bestela, jai. Eta soldaduak nondik lortuko ditugu? Prest gaude soldaduen hilotzei harrera egi-teko, gure oligarken patrikek diruz gai-nezka egiten duten bitartean? Espero dut gure artean, berriro, mugimendu antimilitarista irmo bat sortuko dela. ●